

## OINARRIZKO ARAUTEGIA MDe-k ANTOLATUTAKO ZEHARKAKO PRESTAKUNTZA JARDUERETAN PARTE HARTZEKO

1. Jardueretan izena eman ahal izango da kasuan kasu prestatutako **formularioan**, ez bestela.
2. Parte hartzaileek %100etan joan behar dute saioetara, bertaratze ziurtagiria edo onuraz parte hartzearen ziurtagiria lortu ahal izateko, baldin eta jarduerari buruzko deialdiak bestelako ehunekorik adierazten ez badu. Dena den, ikastaro batean onartutako pertsona bat joan ahal izango da eskola orduen %100era baino gutxiagotara, baina ez zaio emango ziurtagiririk.
3. Ikastaro edo jarduera batera joan ahal izateko, aldez aurretik **mezu elektronikoko bat** jaso behar da **onarpena onartuz**. Jakinarazpen hau posta elektronikoko instituzionalaren bidez egingo da, ez bestela.
4. Ikastaro edo jarduerara justifikaziorik gabe ez joateak eskolak antolatutako beste edozein jardueratarako joateko **aukera utziko du bertan behera urte beteaz**. Ez joateko justifikazioa ezinbesteko arrazoiengatik argudiatuko da, behar bezala egiaztatuta (gaixotasun ziurtatua edo familiarren baten heriotza).
5. Ez da onartuko inoren parte hartzerik ikastaro edo jardueretan, aldez aurretik kasuan kasuko saioetara onartu ez bada.
6. Baliatu ahal diren plazak eskariak baino gutxiago badira, aintzat hartuko da izena **emateko ordena**. Halakorik behar denean, oro har, **lehentasuna** izango dute 3. ikastaroko doktoregaiak 1. eta 2. ikastaroetakoekiko. Egoki leritzoketen jardueretarako, aintzatetsi egingo da kasuan kasu eskatuko den informazio osagarria, dela CV, memoria eta beste.
7. Ikastaro edo jardueraren **gastu zati bat ordaindu** behar denean, egindako ordainketaren ordainagiriaren kopia igorri beharko da MDe-ri. Ez da aurreratutako zenbatekorik itzuliko, bertaratze edo onuraz parte hartzearen ziurtagiria eskuratzen ez bada doktoregaiari lepora dakizkiokeen arrazoiengatik.